# HHS (hiri-hondakin solidoak) ETA RICIA (hondakin industrial, komertzial eta instituzionalak, etxeko hondakinekin parekagarriak) BILTZEKO ZERBITZUAK EMATEKO JARRAIBIDEAK

**3.Bertsioa**

**2026/05/26**

## 0. AURKEZPENA

Dokumentu honek Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateko hiri hondakinen kudeaketa arautzeko ordenantza osatzeko balio du.

Eskaintzen diren zerbitzu mota desberdinei lotutako xehetasunak ematen ditu:

### 1. Garbiguneetan sartzeko ordutegia

Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateko hainbat garbiguneren ordutegiak jasotzen ditu.

### 2. Eskaeraren araberako atez ateko bilketa

Zerbitzu horiek ondoko kasuetako batean baino ez dira emango:

a) Industrialdeetan dauden industrietan, enpresetan, lantegietan, ostalaritza establezimenduetan eta abarretan sortutako hondakinak.

b) Hirigunean dauden ostalaritza establezimenduetan, dendetan eta abarretan sortutako hondakinak, bolumena bide publikoan jarritako edukiontzi orokorrak gehiegi betetzeko modukoa denean.

c) Mankomunitateak erabakitzen duenean erabiltzaile batzuek, beren jarduera mota eta/edo kokapena dela eta, atez ateko zerbitzua nahitaez erabili behar dutela, zerbitzua behar bezala ematea bermatzeko.

### 3. Industrialdeetan egin beharreko bilketa

Hondakin mota bakoitza biltzeko egunak azaltzen dira, industrialdeetako bakoitzeko.

Zerbitzua ez da eskatu behar eta industrialdeetan dauden erabiltzaileek zuzenean jasotzen dituzte zerbitzuok.

## 4. Tamaina handiko hondakinen bilketa

Xehetasunez azaltzen da zeintzuk diren zerbitzu honen bidez kudea ditzaketen hondakinak, baita zona bakoitzari dagozkion ordutegi baldintzak eta bilketa egutegia ere.

## 5. Hondakinak uzteko ordutegia

## 1. GARBIGUNEEN ORDUTEGIA

### ARASO (IRUN)

Astelehenetik ostiralera: 08:00-12:45 / 15:30-18:00

Larunbata: 10:00-13:00 / 15:00-19:00

Igandea: 10:00-13:00

### AKARTEGI (HONDARRIBIA)

Astelehenetik ostiralera: 08:00-12:45 / 15:30-18:00

Larunbata: 10:00-13:00 / 15:00-19:00

Igandea: itxita

## 2.1 ESKAERAREN ARABERAKO ATEZ ATEKO BILKETA ZERBITZUA – MATERIA ORGANIKOA

**Erabiltzaileak:**

Materia organikoaren sortzaile handiak, etxekoak ez direnak, hirigunean edo industrialdean daudenak, 2 egunean gutxienez 120 litro sortzen dituztenak.

**Edukiontziak:**

Atzealdetik kargatzeko edukiontziak erabiliko dira, eredu normalizatuaren araberakoak, aurrerantzean aldatzeko aukera alde batera utzi gabe; ondoko araudia bete beharko dute:

a) UNE-EN 840-2:2021 araua: gehienez 1.000 litroko edukiera, 4 gurpil eta estalki lau bat edo gehiago dituzten edukiontziak, erro eta/edo orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.




| VOLUMEN | 400 L | 500 L | 1 000 L |
|---|---|---|---|
| A | 1 050 mm | 1 000 mm | 1 200 mm |
| B | 1 145 mm | 1 100 mm | 1 295 mm |
| C1 | 780 mm | 655 mm | 1 070 mm |
| C2 | 835 mm | 765 mm | 1 105 mm |
| D | 820 mm | 1 250 mm | 1 265 mm |
| E | 440 mm | 935 mm | 855 mm |
| F | 440 mm | 395 mm | 740 mm |

b) UNE-EN 840-1:2021 araua: gehienez 400 litroko edukiera eta 2 gurpil dituzten edukiontziak, orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.

Establezimendu bakoitzak bere edukiontzia izango du, behar bezala identifikatuta, hondakin motari eta hondakinen jabeari dagokienez.

Eskaeraren araberako atez ateko bilketarako erabiltzen diren edukiontziak erosteaz, mantentzeaz eta garbitzeaz erabiltzaileak arduratuko dira.

Txingudiko Zerbitzuek, sentsibilizazio kanpainen baitan, erabiltzaileei beharrezko edukiontziak laga ahal izango dizkie. Lagatako edukiontziak garbitzea eta mantentzea erabiltzaileen ardura izango da; atez ateko bilketan parte hartzen jarraitu ezean, edukiontziak mankomunitateari itzuli beharko dizkiote.

**Egutegia eta ordutegia:**

Zerbitzua astelehenetik larunbatera ematen da, goizeko eta arratsaldeko txandan. Erabiltzaileek mankomunitateko zerbitzu teknikoekin adostu beharko dituzte biltzeko maiztasuna, eguna eta ordutegia, sortzen duten hondakin kopuruaren eta zerbitzua erabiltzeko aukeraren arabera.

**Funtzionamendu arauak:**

Sortzaileek bilketa ordua baino 30 minutu lehenago (gehienez ere) aterako dituzte edukiontziak eta beren lokalaren atalondoan jarriko dituzte, bilketa zerbitzuko langileek arazorik gabe jasotzea ahalbidetzen duten tokietan; toki horiek, edonola ere, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek erabakiko dituzte.

Edukiontziak hustu ondoren, zerbitzuaren erabiltzaileek kokatuko dituzte berriro instalazioetan.

Hondakinen kantitatea inola ere ezin da edukiontziaren bolumena baino handiagoa izan.

## 2.2. ESKAERAREN ARABERAKO ATEZ ATEKO BILKETA – ONTZI ARINAK

**Erabiltzaileak:**

Ontzi arinen sortzaile handiak, etxekoak ez direnak, hirigunean edo industrialdean daudenak, astean gutxienez 120 litro sortzen dituztenak.

**Edukiontziak:**

Atzealdetik kargatzeko edukiontziak erabiliko dira, eredu normalizatuaren araberakoak, aurrerantzean aldatzeko aukera alde batera utzi gabe; ondoko araudia bete beharko dute:

a) UNE-EN 840-2:2021 araua: gehienez 1.000 litroko edukiera, 4 gurpil eta estalki lau bat edo gehiago dituzten edukiontziak, erro eta/edo orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.




| VOLUMEN | 400 L | 500 L | 1.000 L |
|---|---|---|---|
| A | 1.050 mm | 1.000 mm | 1.200 mm |
| B | 1.145 mm | 1.100 mm | 1.295 mm |
| C1 | 780 mm | 655 mm | 1.070 mm |
| C2 | 835 mm | 765 mm | 1.105 mm |
| D | 820 mm | 1.250 mm | 1.265 mm |
| E | 440 mm | 935 mm | 855 mm |
| F | 440 mm | 395 mm | 740 mm |

b) UNE-EN 840-1:2021 araua: gehienez 400 litroko edukiera eta 2 gurpil dituzten edukiontziak, orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.

Establezimendu bakoitzak bere edukiontzia izango du, behar bezala identifikatuta, hondakin motari eta hondakinen jabeari dagokienez.

Eskaeraren araberako atez ateko bilketarako erabiltzen diren edukiontziak erosteaz, mantentzeaz eta garbitzeaz erabiltzaileak arduratuko dira.

Txingudiko Zerbitzuek, sentsibilizazio kanpainen baitan, erabiltzaileei beharrezko edukiontziak laga ahal izango dizkie. Lagatako edukiontziak garbitzea eta mantentzea erabiltzaileen ardura izango da; atez ateko bilketan parte hartzen jarraitu ezean, edukiontziak mankomunitateari itzuli beharko dizkiote.

**Egutegia eta ordutegia:**

Zerbitzua astelehenetik larunbatera ematen da, goiz/arratsaldeko txandan. Erabiltzaileek mankomunitateko zerbitzu teknikoekin adostu beharko dituzte biltzeko maiztasuna, eguna eta ordutegia, sortzen duten hondakin kopuruaren eta zerbitzua erabiltzeko aukeraren arabera.

**Funtzionamendu arauak:**

Sortzaileek bilketa ordua baino 30 minutu lehenago (gehienez ere) aterako dituzte edukiontziak eta beren lokalaren atalondoan jarriko dituzte, bilketa zerbitzuko langileek arazorik gabe jasotzea ahalbidetzen duten tokietan; toki horiek, edonola ere, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek erabakiko dituzte.

Edukiontziak hustu ondoren, zerbitzuaren erabiltzaileek kokatuko dituzte berriro instalazioetan.

Hondakinen kantitatea inola ere ezin da edukiontziaren bolumena baino handiagoa izan.

## 2.3. ESKAERAREN ARABERAKO ATEZ ATEKO BILKETA ZERBITZUA – BEIRA

**Erabiltzaileak:**

Beiraren sortzaileak, etxekoak ez direnak, oinezkoentzako gune eta hirigune historikoetan daudenak.

**Edukiontziak:**

Atzealdetik kargatzeko edukiontziak erabiliko dira, eredu normalizatuaren araberakoak, aurrerantzean aldatzeko aukera alde batera utzi gabe; ondoko araudia bete beharko dute:

b) UNE-EN 840-1:2021 araua: gehienez 400 litroko edukiera eta 2 gurpil dituzten edukiontziak, orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.

Establezimendu bakoitzak bere edukiontzia izango du, behar bezala identifikatuta, hondakin motari eta hondakinen jabeari dagokienez.

Zerbitzua emateko beharrezko edukiontziak Ecovidriok lagako dizkie erabiltzaileei. Lagatako edukiontziak garbitzea eta mantentzea erabiltzaileen ardura izango da; atez ateko bilketan parte hartzen jarraitu ezean, edukiontziak mankomunitateari itzuli beharko dizkiote.

**Egutegia:**

Ekainaren 15etik irailaren 14ra bitartean: egunero, igandeak eta jaiegunak barne.

Urteko gainerako hilabeteetan: astelehen, ostegun eta larunbatetan.

**Ordutegia:**

IRUN: 15:00etatik 15:45era.

HONDARRIBIA: 15:45etik 17:15era.

**Funtzionamendu arauak:**

Sortzaileek bilketa ordua baino 30 minutu lehenago (gehienez ere) aterako dituzte edukiontziak eta beren lokalaren atalondoan jarriko dituzte, bilketa zerbitzuko langileek arazorik gabe jasotzea ahalbidetzen duten tokietan; toki horiek, edonola ere, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek erabakiko dituzte.

Edukiontziak hustu ondoren, zerbitzuaren erabiltzaileek kokatuko dituzte berriro instalazioetan.

Hondakinen kantitatea inola ere ezin da edukiontziaren bolumena baino handiagoa izan.

## 2.4. ESKAERAREN ARABERAKO ATEZ ATEKO BILKETA ZERBITZUA – KARTOIA

**Erabiltzaileak:**

Kartoiaren sortzaile handiak, etxekoak ez direnak, hiriguneetakoak, bide publikoan dauden edukiontziak gehiegi betetzeko moduko hondakin bolumena sortzen dutenak, astean gutxienez 1000 litro sortzen dituztenak.

**Edukiontziak:**

Atzealdetik kargatzeko edukiontziak erabiliko dira, eredu normalizatuaren araberakoak, ondoko araudia bete behar dutenak:

a) UNE-EN 840-2:2021 araua: gehienez 1.000 litroko edukiera, 4 gurpil eta estalki lau bat edo gehiago dituzten edukiontziak, erro eta/edo orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.




| VOLUMEN | 400 L | 500 L | 1 000 L |
|---|---|---|---|
| A | 1 050 mm | 1 000 mm | 1 200 mm |
| B | 1 145 mm | 1 100 mm | 1 295 mm |
| C1 | 780 mm | 655 mm | 1 070 mm |
| C2 | 835 mm | 765 mm | 1 105 mm |
| D | 820 mm | 1 250 mm | 1 265 mm |
| E | 440 mm | 935 mm | 855 mm |
| F | 440 mm | 395 mm | 740 mm |

b) UNE-EN 840-1:2021 araua: gehienez 400 litroko edukiera eta 2 gurpil dituzten edukiontziak, orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.

Establezimendu bakoitzak bere edukiontzia izango du, behar bezala identifikatuta, hondakin motari eta hondakinen jabeari dagokienez.

Eskaeraren araberako atez ateko bilketarako erabiltzen diren edukiontziak erosteaz, mantentzeaz eta garbitzeaz erabiltzaileak arduratuko dira.

Mankomunitateak baimena emanez gero, kartoia edukiontzietan sartu gabe utzi ahal izango da, ondo tolestuta, mankomunitateak erabakitako bilketa guneetan.

Mankomunitateak baimena emanez gero, esaterako, merkataritza dentsitate handiko eremuetan edo edukiontzi maila txikia duten eremuetan, kartoia solte utzi ahal izango da, ondo tolestatuta eta lotuta, mankomunitateak zehazten dituen bilketa guneetan.

Mankomunitateko zerbitzu teknikoek erabakiko dute kartoia aurkezteko modurik onena, zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeko eta pertsonen zirkulazioari eragin gabe.

**Egutegia eta ordutegia:**

Zerbitzua egunero ematen da, igandeak eta jaiegunak barne, gaueko txandan. Erabiltzaileek mankomunitateko zerbitzu teknikoekin adostu beharko dituzte biltzeko maiztasuna, eguna eta ordutegia, sortzen duten hondakin kopuruaren eta zerbitzua erabiltzeko aukeraren arabera.

**Funtzionamendu arauak:**

Sortzaileek 20:00etatik aurrera aterako dituzte papera eta kartoia, eta beren lokalaren atalondoan jarriko dituzte, bilketa zerbitzuko langileek arazorik gabe jasotzea ahalbidetzen duten tokietan; toki horiek, edonola ere, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek zehaztutakoak izango dira.

Edukiontziak hustu ondoren, zerbitzuaren erabiltzaileek kokatuko dituzte berriro instalazioetan.

Hondakinen kantitatea inola ere ezin da edukiontziaren bolumena baino handiagoa izan.

TXINGUDIKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE TXINGUDI

## 3. ATEZ ATEKO BILKETA ZERBITZUA INDUSTRIALDEETAN

**INDUSTRIALDEETAKO HONDAKINEN BILKETA EGUNAK**

DÍAS DE RECOGIDA DE RESIDUOS EN POLÍGONOS INDUSTRIALES

| INDUSTRIALDEA<br>POLÍGONO | KALEA<br>CALLE | EGURRA<br>MADERA | KARTOIA-PAPERA<br>CARTON-PAPEL | PLASTIKO<br>PLASTIKO | ORGANIKOA<br>ORGÁNICO | ONTZI ARINAK<br>ENVASES | ERREFUSA<br>RESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GABIRIA | GABIRIA | Astelehena-Lunes | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Astelehena-Lunes | Astelehena-Lunes |
| | PRIMAUTZAR | Astelehena-Lunes | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Astelehena-Lunes | Astelehena-Lunes |
| OIANZABALETA | OIANZABALETA | Astelehena-Lunes | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Astelehena-Lunes | Astelehena-Lunes |
| ARANIBAR | XARLENGO | Astelehena-Lunes | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Astelehena-Lunes | Astelehena-Lunes |
| | LABELTZE | Astelehena-Lunes | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Astelehena-Lunes | Astelehena-Lunes |
| | ARANIBAR | Astelehena-Lunes | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Astelehena-Lunes | Astelehena-Lunes |
| VENTAS | ARABA, N.7 | Lunes- Astelehena | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Asteartea - Martes |
| | VENTAS, N.15, N. 35, N.36 y N.37 | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Asteartea - Martes |
| BIDAURRE UREDER | VENTAS, N.45 | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Asteartea - Martes |
| ARASO | VENTAS, N.80 - C.C.TXINGUDI | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Asteartea - Martes |
| | ERREGEOIANA | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Astelehena-Lunes | Asteartea - Martes |
| ARRETXE UGALDE | LAMSINGO ITURRIA | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Asteartea - Martes |
| | LEKUMBERRI | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Asteartea - Martes |
| | EZURRIKI | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Asteartea - Martes |
| MOLINO | MOLINO | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes |
| | LETXUNBORRO IMPARES | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes |
| | GOROSTIAGA | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes |
| BELASKONEA | AUZOLAN | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes |
| | BELASKO | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes |
| | IRULE | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes |
| | GOBARAIN | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes |
| | MEATZARI | Ostiraia - Viernes | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes |
| LETXUMBORRO | POZUETAKOGAINA | Asteazkena - Miércoles | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Asteazkena - Miércoles |
| | LETXUNBORRO PARES | Astelehena-Lunes | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Asteazkena - Miércoles |
| ESKORTZA | LETXUNBORRO | Astelehena-Lunes | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Asteazkena - Miércoles |
| ANAKA | BURNIOLA | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Asteazkena - Miércoles |
| | ANAKA, N.17 y N.28 | Ostiraia - Viernes | Astelehena-Lunes | Osteguna - Jueves | Ostiraia - Viernes | Osteguna - Jueves | Asteazkena - Miércoles |
| ZAISA | EUROPA | Asteazkena - Miércoles | Asteazkena - Miércoles | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves |
| | ANTXONTXIPI | Asteazkena - Miércoles | Asteazkena - Miércoles | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves |
| | COMETE SAREA | Asteazkena - Miércoles | Asteazkena - Miércoles | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves |
| BEHOBIA | BEHOBIA, N.37-N.48 y N.61 | Asteazkena - Miércoles | Asteazkena - Miércoles | Asteartea - Martes | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves |
| AMUTE | AMUTE ALDE, N.5 al N.21 IMPARES | Asteazkena - Miércoles | Asteazkena - Miércoles | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves |
| TXIPLAU | TXIPLAU | Asteazkena - Miércoles | Asteazkena - Miércoles | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves |
| GABARRARI | GABARRARI | Asteazkena - Miércoles | Asteazkena - Miércoles | Osteguna - Jueves | Asteartea - Martes | Osteguna - Jueves | Osteguna - Jueves |

**RESTO, ORGÁNICO Y ENVASES: ÚNICAMENTE PARA AQUELLAS EMPRESAS QUE SOLICITEN EL SERVICIO**

**ERREFUSA, ORGANIKOA ETA ONTZI ARINAK: ZERBITZUA ESKATZEN DUTEN ENPRESENTZAKO SOILIK**

**NO SE ADMITIRÁN RESIDUOS INDUSTRIALES ORIGINADOS EN LOS PROCESOS PRODUCTIVOS, QUE NO SEAN ASIMILABLES A LOS PRODUCIDOS EN LOS DOMICILIOS PARTICULARES, COMERCIOS, OFICINAS Y SERVICIOS**

**EKOIZPEN-PROZESUETAN SORTUTAKO INDUSTRIA-HONDAKINAK EZ DIRA SARTUKO, ETXE PARTIKULARRETAN, DENDETAN, BULEGOETAN ETA ZERBITZUETAN SORTUTAKOEKIN PAREKAGARRIAK EZ BADIRA**

TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

**FRAKZIO BAKOITZEAN ZER?**

**EGURRA:** egur naturala, palets-ak, egurrezko kaxak...

**KARTOIA:** papera eta kartoia orokorrean

**PLASTIKO BERZIKLAGARRIA:** plastiko fina orokorrean (enbalajeetako plastikoa, burbuiak dituen plastikoa)

**ORGANIKOA:** materia organikoa (janari hondarrak, oranikoarekin edo urarekin zikindutako papera...)

**ONTZI ARINAK:** plastikozko ontziak (botilak, poltsak...), metalezko ontziak (latak, zilarrezko papera...) eta tetrabrik ontziak

**ERREFUSA:** Hiri-hondakinekin parekagarria ez den hondakin birziklagarria

**¿QUÉ DEPOSITO EN CADA FRACCIÓN?**

**MADERA:** madera natural, palets, cajas de madera...

**CARTÓN:** papel y cartón en general.

**PLÁSTICO RECICLABLE:** Plástico fino en general, (plástico de embalajes, plástico de burbujas)

**ORGÁNICO:** materia orgánica (restos de comida, papel sucio con agua o restos orgánicos...)

**ENVASES**: envases de plástico (botellas, bolsas...), envases metálicos (latas, papel de plata....) y tetrabricks

**RESTO:** residuo asimilable a urbano que no sea reciclable

**Edukiontziak:**

Atzealdetik kargatzeko edukiontziak erabiliko dira, eredu normalizatuaren araberakoak, ondoko araudia bete behar dutenak:

Aurrerantzean aldatzeko aukera alde batera utzi gabe, erabili behar diren edukiontziek ondoko araudia bete beharko dute:

a) UNE-EN 840-2:2021 araua: gehienez 1.000 litroko edukiera, 4 gurpil eta estalki lau bat edo gehiago dituzten edukiontziak, erro eta/edo orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.




| VOLUMEN | 400 L | 500 L | 1.000 L |
|---|---|---|---|
| A | 1.050 mm | 1.000 mm | 1.200 mm |
| B | 1.145 mm | 1.100 mm | 1.295 mm |
| C1 | 780 mm | 655 mm | 1.070 mm |
| C2 | 835 mm | 765 mm | 1.105 mm |
| D | 820 mm | 1.250 mm | 1.265 mm |
| E | 440 mm | 935 mm | 855 mm |
| F | 440 mm | 395 mm | 740 mm |

b) UNE-EN 840-1:2021 araua: gehienez 400 litroko edukiera eta 2 gurpil dituzten edukiontziak, orrazi motako goragailuekin erabiltzeko.

**Funtzionamendu arauak:**

Sortzaileek bilketa ordua baino 30 minutu lehenago (gehienez ere) aterako dituzte edukiontziak eta beren lokalaren atalondoan jarriko dituzte, bilketa zerbitzuko langileek arazorik gabe jasotzea ahalbidetzen duten tokietan; toki horiek, edonola ere, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek erabakiko dituzte.

Edukiontziak hustu ondoren, zerbitzuaren erabiltzaileek kokatuko dituzte berriro instalazioetan.

Hondakinen kantitatea inola ere ezin da edukiontziaren bolumena baino handiagoa izan.

## 4. TAMAINA HANDIKO HONDAKINEN BILKETA

**Zer DA tamaina handikoa:** Altzariak, lastairak, etxetresna elektriko handiak, telebistak, ordenagailuak, etab.

**Zer EZ DA tamaina handikoa:** obra-hondakinak, paletak, inausketa hondakinak, hondakin sanitarioak, pintura ontziak.

Lehentasunez, bi garbiguneetako edozein erabili behar da: ARASO (Decathlon dendaren atzealdea) edo AKARTEGI.

Hondakin mota batzuen eta tamaina txikiko hondakinen kasuan, mini-garbiguneak ere erabil daitezke.

Azkenik, aurreko aukeretatik bat ere ezin bada erabili, tamaina handikoak biltzeko zerbitzua erabil daiteke:

**HIRIGUNEA**

**Ordutegia:** Errefusa biltzeko edukiontziaren ondoan jarriko da, 20:30etik 22:00etara bitartean.

**Biltzeko maiztasuna, auzoka:** zona bakoitzari dagokion informazioa errefusa biltzeko edukiontzietan ere serigrafiatu da.

**Astelehen eta ostegunetan:**

**IRUN:** Alde Zaharra, Antzaran, Erdialdea, Lapitze, Larreaundi, Olaberria, Pinudi eta San Miguel.

**Astearte eta ostiraletan:**

**IRUN:** Anaka eta Jaizubia.

**HONDARRIBIA**: Akartegi, Alde Zaharra, Amute-Kosta, Mendelu, Portua, Puntalea eta Zimisarga

**Asteazken eta igandeetan:**

**IRUN:** Arbes, Artia, Behobia, Belaskoenea, Dunboa, Landetxa eta Santiago-Beraun

***<u>Larunbatetan eta jai bezperetan tamaina handikoak biltzeko zerbitzurik egongo ez denez, garbigune zerbitzuak erabili beharko dira, edo zona bakoitzari dagokion hurrengo egunera arte itxarongo da.</u>***

**LANDA EREMUA**

Tamaina handiko hondakinak landa eremuan ostiraleko goizetan bilduko dira, 900 119 384 telefono zenbakira deitu eta gero.

Tamaina handiko hondakinak errefusa biltzeko edukiontziaren ondoan jarriko dira, osteguneko 20:00etatik aurrera.

## 5. HONDAKINAK UZTEKO ORDUTEGIA

Auzokoei zarata arazorik ez sortzeko:

Beira goizeko 08:00etatik aurrera utzi beharko da, gaueko 22:00ak baino lehen.